



UDALAREN KIROL ZERBITZUAK HANDITZEKO ETA HEDATZEKO DIRULAGUNTZAK




ZERGATIK?

Familien zaintzarekin edo lan edo ikasketen eskakizunekin lotutako denbora falta Gipuzkoako biztanleentzat jarduera fisikoa praktikatzeko lehen oztopo gisa agertzen da. Ordutegiei, beste udalerrietako kirol zerbitzuetarako sarbideari eta antzeko alternatibei dagokienez aukerak erraztuz, kasu askotan inaktibitate fisikoa eragiten duen arazo hau arindu daiteke.

NORK?

Kirol Zuzendaritza Nagusiak



ZERTARAKO?

Gipuzkoako biztanleria osoarentzako kirola egiteko aukerak areagotzea. Proiektua Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzen lerro bat irekitzean datza, udalek kirol instalazioen ordutegia zabal ditzaten bultzatzeko, biztanleria osoaren partaidetzarako herri kirol ekitaldiak antolatzeke eta kirol txartelak bateratuak garatzeko.

NOLA?

2023an A4 laguntza-lerroan azpillerro bat sortzea. Jarduera fisikoaren sustapena, Gipuzkoako toki entitateei (udalak) zuzenduta, zeinaren bidez udal kirol instalazioen ordutegia zabaltzeko programak, asteburuetan herri ekitaldiak antolatzea eta kirol txartela programa bateratuak finantzatzaren diren. 2022an, komunikazio-ekintza bat eta udaletako kirol-teknikariari laguntza teknikoa ematea abiaraziko litzateke, laguntza-lerroaren eta bere irismenaren berri emateko.



NON?

Bertakoa, Eskualdekoa, Lurraldekoa

NOIZ?

2022/10/10



200.000€